

INGURUMEN KOMUNIKAZIOKO ESKOLA 2025

‘Km0 elkarrizketak, herritarrekin
konektatzeko’

2025eko irailaren 4a



AURKIBIDEA

1

Eskola

2

Inaugurazioa

3

Elkarrizketak

4

Arrakasta kasuak

5

Jarduera praktikoak

6

Eskola laburbilduz

ESKOLA

Ihobek, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, eta Ingurumen Informazioko Kazetarien Elkarteak (APIA) Ingurumen Komunikazio Eskola bultzatzen dute, zeinak bere zazpigarren edizioan gai nagusi hau izan duen: 'Kmo elkarrizketak herritarrekin konektatzeko'.

Aurten, berriro ere, Ingurumen Komunikazio Eskolak komunikazio eta ingurumen arloko adituak bildu ditu, eta klima eta ingurumen krisia herritarrei nola helarazi eztabaidatzeko erreferentziazko foro gisa finkatu da. Topaketa 2025eko irailaren 11n egin da, Donostiako Miramar Jauregian, Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) Uda Ikastaroen esparruan, eta 'Kmo elkarrizketak, herritarrekin konektatzeko' izan da bere gai nagusia.

Zazpigarren edizio honetan, parte hartzaileek gure kontsumo ohituren eta ohitura horiek ingurumenean duten inpaktuaren arteko harremana landu ahal izan dute. Jardunaldi horretan, greenwashingaren aurkako Europako araudi berriaren inpaktuaz edo kontsumo kritikoa sustatzearen garrantziaz eztabaidatu da, eta herritarrekin hurbiltasunetik eta emoziotik konektatzen duten esperientziak arakatu dira.

Saioa bi esperientzia praktikorekin osatu da: Basque Culinary Centerera egindako bisita bat, jardunaldian modu presentzialean parte hartu duten pertsoneri zuzendua, jasagarritasunaren arloan duten estrategia bertatik bertara ezagutzeko; eta etiketa ekologikoei buruzko tailer praktiko bat, jardunaldian bide telematikoz parte hartu dutenentzat.



INAUGURAZIOA | Miramar Jauregia 2025/09/11

Irekiera instituzionalean, Idoia Otaegui Aizpurua (EHU), Alexander Boto Bastegieta (Ihobe-Eusko Jaurlaritza) eta Maria Garcia de la Fuente (APIA) bat etorri ziren komunikazioak herritarrei hainbat gai hurbiltzeko duen funtsezko zeregina azpimarratzean, komunikazioak herritarrei krisi klimatikoa, biodibertsitatearen galera, ekonomia zirkularra edo ondare naturalaren kontserbazioa helarazteko balio duela azpimarratu baitzuten.



Idoia Otaegui Aizpurua

EHUko Uda Ikastaroen Fundazioko zuzendari akademikoa

“ *Ohitura indibidualak, gizarte mailan biderkatuta, eraldaketa kolektiboko palanka bihurtzen dira, eta egunerokoaren eta globalaren arteko lotura agerian uzten duten kontakizunak behar ditugu.* ”



Alexander Boto Bastegieta

Ihobe-Eusko Jaurlaritzako zuzendari nagusia

“ *Gure ohiturak ingurumen inpaktuarekin lotuta daude, eta herritarrek informazio egiazkoa eta zorrotza izatea behar dugu, haiek erabaki arduratsuak har ditzaten.* ”



María García de la Fuente

APIAko lehendakaria

“ *Kazetaritzaren ardura da ingurumena herritarren eguneroko bizitzan presente egotea lortzea.* ”

ELKARRIZKETAK

Nola eragiten dien herritarrei greenwashingari buruzko araudi berriak

Greenwashingaren aurkako Europako araudi berriaren eragina izan zen jardunaldiko lehen solasaldiaren gai nagusia, eta José María Fernández Alcalá, I hobeko Ekonomia Zirkularreko zuzendariak, eman zuen hitzaldia, Amaia Goikoetxea Marques Elkarteko eta Kazetarien Euskal Elkargoko lehendakari eta dekanook moderatuta.

Bere solasaldian arlo horretako zuzentarau berria aztertu zuten. 2024an onartu zen zuzentarau berri hori, eta 2026an indarrean egongo dela aurreikusten da. Erregulazio berri honekin, kontsumitzaileak ahalduz eta gardentasuna hobetzea nahi da, produktu eta zerbitzuek ingurumenaren eta gizartearen aldetik dituzten ezaugarriekin lotutako praktika komertzial engainagarriak debekatzen baititu.





José María Fernández Alcalá

Ihobe-Eusko Jaurlaritzako zuzendari nagusia

Oraintxe bertan badakigu komunikazioa ez dela behar bezala funtzionatzen ari erosten ditugun produktuen eta zerbitzuen jasangarritasunarekin lotutako gaietan, eta kontsumitzaileok nahastuta sentitzen gara ditugun informazio askorekin. Badirudi dena berdea, ekologikoa edo zirkularra dela, eta horrek eragin kaltegarria du. Europako zuzentarau berriak ekoetiketak jartzeko sistema ofizialak indartuko ditu eta, horrela, kontsumitzaileak trantsizio ekologikorako ahaldunduko ditu.

Orain, erronka da herritarrek ingurumenaz dituzten kezkek kontsumo jasangarriko benetako ohitura bihurtzea, jasangarritasunak nahitaez gainkosturik ekarri gabe. Gauzak erraz eta eskuragarri egin behar ditugu. Ezin dugu onartu jasangarritasuna soilik ordaindu dezakeenarentzat izatea. Kazetaritzak eta ingurumen komunikazioak zeregin erabakigarria dute informazio zorrotza modu ulergarri eta didaktikoan eta alarmismorik gabe helarazteko.



Europako zuzentarau berriak ekoetiketak jartzeko sistema ofizialak indartuko ditu eta, horrela, kontsumitzaileak trantsizio ekologikorako ahaldunduko ditu.

ELKARRIZKETAK

Kontsumoa, ingurumen komunikaziorako tresna gisa

Hurrengo elkarrizketan kontsumoaren eta ingurumen komunikazioaren arteko harremana jorratu zen nagusiki, eta bertan Laura Villadiego Gutierrez kazetariak parte hartu zuen. Carro de Combate proiektuaren sortzaileetako bat da, eta kontsumitzen ditugun produktuen jatorria ikertzen duten kazetari independente batzuk dira proiektuaren partaideak. Villadiegoren ondoan Jon Egaña Cadena SER Euskadiko Albistegietako burua egon zen.





Laura Villadiego Gutiérrez

Carro de Combateren sortzaileetako bat

Kontsumoa, berez, tresna politikoa da, eta nahi dugun sistema ekonomiko eta sozialari buruzko mezuak zabaltzeko modu boteretsuenetako bat. Industriak kontakizun hori bere egin du, eta erantzukizun guztia kontsumitzaileen esku utzi du, ekoizpenak berak erantzukizun hori bere gain hartu beharrean.

Carro de Combate-n jada ez dugu “kontsumo arduratsuaz” hitz egiten, eta jada “kontsumo kritikoaz” hitz egiten dugu. Ez dut nahi jendea errudun sentitzea, jendea haserretzea nahi dut. Garrantzitsuena da jakitea zer dagoen kontsumitzen dugunaren atzean: ekoizpen prozesuak, inpaktu sozialak eta ingurumen inpaktuak. Lehen aukera gutxiago kontsumitzea izan behar da beti. Ezinezkoa da egun dugun kontsumo bolumen bera mantendu nahi izatea, estandar jasangarriekin bada ere. Planetak ez du karga ahalmen hori.



Ez dut nahi jendea errudun sentitzea, jendea haserretzea nahi dut. Dagoeneko ez da kontsumo arduratsuaz hitz egin behar, kontsumo kritikoaz baizik.

ARRAKASTA KASUAK

Azkenik, ingurumen komunikazioko proiektu zehatzak emoziotik eta hurbiltasunetik herritarrekin konektatu daitezkeela erakusteko saio bat egin zen, Begoña Beristain García kazetariak gidatuta.

Saioan, Javier Rico Nieto kazetari eta ingurumen hezitzaileak lagundu zion. "A ver aves" proiektuaren sortzailea da, zeinak eskola umeak eta pertsona helduak hegaztiak behatzera hurbiltzen baititu. Cesar-Javier Palacios Palomar kazetari eta idazleak ere lagundu zion, 'Cata de Paisajes' bost zentzumenez natura ingurunea dastatzera gonbidatzen duen proiektuarekin izandako esperientziaz hitz eginda.



ARRAKASTA KASUAK



Javier Rico Nieto

'A ver aves'-en sortzailea

'A ver aves', biodibertsitateari eta ohitura jasangarriei buruz komunikatzeko beste modu bat

Gure proposamena 2012an sortu zen, eta inguruko parke eta lorategietan ere biodibertsitatea badagoela eta biodibertsitate hori lehen pertsonan deskubritzeak ingurumenarekiko jakin-mina eta konpromisoa pizten duela erakusten du. Haurrek natura liburu ireki bat balitz moduan bizitzea da gakoa, natura ukitu, entzun eta sentitu ahal izatea, alegia. Hezkuntza ezin da soilik ekitaldi puntualak izan, tranbertsala eta egunerokoa izan behar da.

“Haurrek natura liburu ireki bat balitz moduan bizitzea da gakoa, natura ukitu, entzun eta sentitu ahal izatea, alegia.



César-Javier Palacios Palomar

'Cata de paisajes'-en sortzailea

'Cata de paisajes', naturan zehar ibilbide bat gastronomiaren bidez

'Cata de Paisajes' proiektuak natura ingurunea bost zentzumenekin dastatzera gonbidatzen du, ardo bat dastatzen den bezala. Emoziotik komunikatu behar da, eta landa mundua eta toki munduarekiko lotura berreskuratu. Kontsumitzaileen gizarte bat bihurtzen ari gara, denbora eta jakin-mina falta zaizkigu. Paisaia dastatzea da ahaztu dugunarekin berriz elkartzeko modu bat.

“Emoziotik komunikatu behar da, eta landa mundua eta toki munduarekiko lotura berreskuratu.

JARDUERA PRAKTIKOAK

Basque Culinary Centerrera bisita

Eskola arratsaldean deialdi bikoitza eginda itxi zen. Alde batetik, ikastaroan modu presentzialean parte hartu zutenek Basque Culinary Center bisitatzeko aukera izan zuten, gastronomiaren eta elikaduraren formazio eta ikerkuntzan diharduen erakundeak jarraitzen duen jasagarritasun estrategia bertatik bertara egiaztatzeko.



Etiketa ekologikoei buruzko tailerra



Gorane Ibarra González

Ihobe-Eusko Jaurlaritzako Europako Etiketa Ekologikoaren arduraduna

Aldi berean, jardunaldia modu telematikoan jarraitzen zutenak etiketa ekologikoei buruzko saio praktiko batera joan ziren. Gorane Ibarra Gonzalez, Ihobeko Europako Etiketa Ekologikoaren arduradunak, merkatuan dauden etiketa eta ingurumen markatzaile motak azaldu zituen tailer honetan, eta informazio egiazkoa eta zorrotza ematen duten eta herritarrei kontsumo erabaki arduratsuak hartzen laguntzen dieten zigiluak bereizteko tresna batzuk eman zituen.

ESKOLA LABURBILDUZ



Luis Guijarro García - APIA

- Nola komunikatzen ditugu aurrean ditugun erronka handiak? Kontakizunak ikusgarriak izatea behar dugu egunerokotik globalera pasatzeko.
- Eskola lhobe eta APIAren arteko lankidetzaren arrakasta kasu bat da; izan ere, herritarrak ahalduntzea lortzen ari da haiek larrialdi klimatikoari aurre egiteko.
- Herritarrak kezkatuta daude beraiek kontsumitzen dituzten produktuek ingurumenean dituzten ondorioengatik.
- Greenwashingaren aurkako araudi berriak kontsumitzaileak praktika engainagarrietatik babestea du helburu.
- Kontsumoaz hartzen ditugun erabaki guztietan inplikatu behar dugu.
- Kontsumitzaileak ahaldunduta daude eta merkatuko zaindariak izango dira.
- Dagoeneko ez da kontsumo arduratsuaz hitz egin behar, kontsumo kritikoaz baizik. Gutxiago kontsumitu behar dugu.
- Funtsezkoa da komunikazioan emozioak lantzea.

“Ingurumen Komunikaziorako VII. Eskolak berretsi du kontakizun zorrotzak, hurbilak eta zirrargarriak eraiki behar direla, herritarrak trantsizio ekologikoaren protagonista bihurtzeko.”



ANTOLATZAILE



UDA IKASTAROAK
CURSOS DE VERANO
SUMMER COURSES



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO